

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lola Valverde Lamsfus

*Donostia,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Grosen jaioa, guraso biak Errenteriakoak zituen, amaren abizena jatorri alemaniarrekoa den arren. Aita, Antonio Valverde "Ayalde", margolari ezaguna zen, eta familiako Grafica Valverde inprimategian egiten zuen lana. Lola sei senidetan zaharrena zen, eta Sagrado Corazón moja ikastetxean egin zituen Batxilergoa bitarteko ikasketak. Frantseseko titulua ere atera zuen. Ezkondu eta ama izan zenean, konturatu zen hura ez zela nahi zuen bizitza: lanean hasi zen, frantseseko irakasle moduan, eta gero ikasten ere bai. Historia ikasketak egin zituen, Nafarroako unibertsitatean, eta doktore tesia ere bai EHUn. Unibertsitatean historia irakasten jardun zuen gero. San Telmo museoan egin genion elkarrizketa.

Zintak

DON-207

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-06-17
- **Iraupena:** 131 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Lamsfus abizenaren jatorria

- **Erref:** DON-207/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Lamsfus" Alemaniako abizena da. Birraitonak sei urte zituenean etorri ziren Euskal Herrira, meatzeetara lanera, "Real Compañía asturiana de minas" lantegira.

2. Emakume asko etxean

- **Erref:** DON-207/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak ez zuen etxetik kanpora lan egiten. Etxean amaren ama eta bi izeba ere bizi ziren beraiekin. Birramona ere beraiekin bizi zen, bera jaio baino zerbait lehenagora arte.

3. Amona Lola enpresari

- **Erref:** DON-207/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona Lolak enpresaren ardura hartu zuen aitona hil zenean. Amak, aitaren aldeko amonak eta berak izen bera zeukaten.

4. Aita euskaltzaletu zenekoa

- **Erref:** DON-207/008
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Aitak "Gráficas Valverde" enpresako ardura zeukan, 200 langile ingurukoa. Bere zaletasuna margotzea zen. Amak oso ondo egiten zuen euskaraz baina aitak ez zekien, eta ohartu zenean euskara galtzen ari zela, ikasten hasi zen. Egun batez aitak erabaki zuen etxean denek euskaraz egingo zutela handik aurrera. Umezaina eta neskamea euskaldunak ziren eta sukaldariak ere bazekien pixka bat. Oso gogorra egin zitzaiera kontatzen du. Aitak Elbira Zipitriarekin ikasi zuen eta bere kabuz ere bai. Euskaltzaindiara iritsi zen. Askok idazten zuen prentsan.</p>

5. Euskara nola ikasi zuen

- **Erref:** DON-207/009
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bere anai-arreba bi euskaraz hitz egiteko leku batera eramaten zituzten eskola eta gero. Hitz eginez ikasi zuen, eta irakasle aritu zenean, euskara ikastaroak egiten zituen.

6. Lanean hastea erabaki zuenekoa

- **Erref:** DON-207/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Batxilergoa egin zuen. Inork ez zion goi-mailako ikasketarik egitea proposatu eta ez zuen egin. Ezkondu aurretik, frantseseko goi-mailako titulua eskuratu zuen. Etxekoandre ez izan eta frantseseko irakasle lanetan hastea erabaki zuenekoa kontatzen du.

7. Unibertsitatera libretik

- **Erref:** DON-207/011
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Unibertsitaterako sarrera-proba egin eta gainditu egin zuen, eta Filosofia eta Letrak ikasten hasi zen. Zaragozara joaten zen azterketak egitera libretik, baina oso gaizki hartzen zituzten. Historia Nafarroako Unibertsitatean egin zuen.

8. Txikitatik historiarekiko lilura

- **Erref:** DON-207/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:23:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

"Sagrado Corazón" moja etxean ikasi zuen. Oso ikastetxe elitista zela dio. Eraikina bota egin zuten. Bere ikaskide batzuek "Hogar" izeneko ikastaroak egiten zituzten. Batxilergoa egin zuen berak eta historiari buruzko ikasgaiak lehenengo aldiz 9-10 urterekin jaso zituen. Orduan zaletu zen historiara.

9. Mojen ikastetxean egunerokoa nolakoa zen

- **Erref:** DON-207/013
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:23:19. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Uniforme urdinarekin ibiltzen ziren, eta zuria ere izaten zuten jai egunetarako. Egutero joaten ziren ikastetxera. Igande arratsaldea bakarrik zeukaten libre. Mojek beren erara hezi nahi zituzten. Hamabi orduz egoten ziren ikastetxean. Egun bat zelakoa izaten zen kontatzen du.

10. Elkar ukitzea debekatuta ikastetxean

- **Erref:** DON-207/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ez zitzaion asko gustatzen mugitzea. Ezin zuten elkar ukitu, ezin zituzten eskuak poltsikoetan sartu... Mojek debekatu egiten zieten.

11. Ikasle pobreak eta aberatsak bereizita

- **Erref:** DON-207/015
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:27:16. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Zein familiatik zetozen begiratzen zuten ikastetxean, eta zeinen bitartez zetozen ere bai. Klausurako mojak ziren. Beste eskola txiki batean ikasle pobreak egoten ziren. Haiekin zeukaten harreman lotsagarria kontatzen du; pobreak aberatsen eskolara balira moduan izaten zen.

12. "Sagrado Corazón" ikastetxeko mojak Frantziatik etorriak

- **Erref:** DON-207/017

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:31:37. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Frantsesez mojekin ikasi zuen, haiek frantsesak baitziren. Frantzian 1905eko lege batek erlijiosoei hezkuntzarako eskubidea ukatu zieten eta handik iritsi ziren Donostiara. Mojetako baten aitak dohaintzan emana izan zen eraikuntza.

13. Oporretan mojekin edo familiarekin

- **Erref:** DON-207/018
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Udaran ere astean behin kolegiara joaten zen, bisita egitera. Jertsea jantzita joan behar izaten zuten. Gurasoek Oiartzunen etxe bat egin zuten, "Ayalde", eta hantxe pasatzen zituzten oporrak. Askok aspertzen zen han.

14. Irakurzalea, gehiegi

- **Erref:** DON-207/019
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Oso irakurzalea izan da beti. Aitaren liburu guztiak irakurtzen zituen. Ohean, pasilloan, kalean, beti irakurtzen ari zen. Aitak behin liburua apurtu zionekoa kontatzen du.

15. Piano ikasketak, izeba pianisten eraginez

- **Erref:** DON-207/020
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Sei urtetik hamalau urte ingurura arte pianoa ikasi zuen. Aitaren bi arreba pianistak ziren. Haietako batek, Maria Josefak (tia Pisko beraientzat) etxean organo bat jarrarazi zuen; pianista profesionala izan zen.

16. Valverdetarrei pasaporteak kendu zieten, tortura salatzeagatik

- **Erref:** DON-207/023
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:43:21. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Frankismo garaian Valverdetarrei pasaporteak kendu zieten. Bere laugarren anaia espetxean egon zen eta amaren lehengusu baten bidez bisitatzeko baimena lortu zuten. Tortura salatu zuten. Poliziak asko haserretu ziren eta ahizpa txikiari torturarena gezurra zela sinarazi zioten. Orduan kendu zieten pasaporteak; eta trantsizioan pasaporteak ateratzera joan zenean, senarrarekin joan behar izan zuen.

17. Militantzia feminista Donostian

- **Erref:** DON-207/025
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:50:08. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Abortu eskubidearen aldarriak Europa mailan izan zuen indar handia. 70. hamarkada hasieran feminismoaren bueltan biltzen hasi ziren; alderdi politikoak zeuden batetik, eta militantzia bikoitza bestetik. Emakumeen asanbladan biltzen ziren talde guztiak. Urte batzuetan ibili zen eta gero ohartu zen ez zela ezer aurreratzen, eta militantzia urte batzuez utzi egin zuen.

18. Gizonen menpetik ateratzea aldarri

- **Erref:** DON-207/026
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Aborturako eskubidea, etxetik kanpo lan egiteko eskubidea eta gizonen menpekotasunetik ateratzea zuten aldarri. Emakume asko zeuden gizonaren menpe. Gaur egun biolentzia ikusgarriagoa dela dio. Lehen hilketa gutxiago zegoela uste du.

19. Komunisten talde feministan

- **Erref:** DON-207/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mugimendu komunistaren inguruan ibiltzen zen, emakume taldearekin. "Emakumeen borroka", "Independenteak" eta beste hainbat talde zeuden. Batzuk lotuago zeuden alderdi politikoetara.

20. Lehenengo manifestazio feminista Donostian

- **Erref:** DON-207/029
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehenengo manifestazioa 1971 edo 1972an egin zuten, igande batez. "Actualidades" izeneko zineman emakumeen bilera bat antolatu zuten eta asko batu ziren baina ez zieten baimenik eman sartzeko. Manifestazioa egin zuten orduan.

21. Feminismoa, arraroa izatetik olatu izatera

- **Erref:** DON-207/030
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoa oso gaizki ikusia egon zen eta mugimendua kolokan ere bai. Gauza arraroa zen feminista izatea. 2019ko manifestazioan sentitutakoa kontatzen du; oraingoa hirugarren olatua dela azaltzen du.

22. Talde feministan nolatan hasi zen

- **Erref:** DON-207/033
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:07:12. **Bukatu:** 01:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Aurkeztu zuen bere burua 1977an Euskadiko Ezkerra taldearekin eta mitinak ematen zituen. Talde feministara batzeko gonbita egin zioten, mugimendu komunistari lotuta.

23. Lehenengo iraultza, gero feminismoa

- **Erref:** DON-207/034
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:08:25. **Bukatu:** 01:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ezkerreko politikari batzuek aldarrikatzen zuten lehenengo iraultza egin behar zela, eta ondoren feminismoaren aldeko borroka.

24. Leioako topaketa feministak

- **Erref:** DON-207/036
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Leioako topaketa feministak oso ederrak izan zirela dio, hainbesteko elkartasuna ikustea, hainbeste emakume... Ez zen ausartu Bartzelonako topaketetara joaten.

25. "Entre el deshonor y la miseria" liburuaz

- **Erref:** DON-207/038
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:18:51. **Bukatu:** 01:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bere ikerketetan genero ikuspegia landu izan du, ezinbestean. "Entre el deshonor y la miseria" izeneko liburua argitaratu zuen bere tesia oinarri hartuta. Emakumeek umea abandonatzeko zituzten arrazoiak lantzen ditu: beren ohorea galtzeko arriskua edo miseria. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran ume asko abandonatzen zituzten.

26. Neskame joan, haurdun geratu eta etxetik kanpora

- **Erref:** DON-207/039
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:22:04. **Bukatu:** 01:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria

Laburpena:

Haurdun geratzen ziren emakume batzuk etxetik botatzen zituen aitak; baina gehienak neskame joanda haurdun uzten zituztenak izaten ziren.

27. Lantegiak baino neskame joatea seguruagoa zelakoan

- **Erref:** DON-207/040
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:24:02. **Bukatu:** 01:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxe askotan uste izaten zuten lantegietako giroa emakumeentzat txarra eta gehiegizko askatasunezkoa izango zela, eta ostera, neskame joatea seguruagoa zela.

28. Abandonatutako umeak baserrietara

- **Erref:** DON-207/041
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:25:04. **Bukatu:** 01:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umea abandonatutakoan, askotan ohartxoak uzten zituzten amek. Baserrietan hazten zituzten asko; diputazioak dirutxo bat ematen zien baserritarrei.

29. Ume lapurretak frankismoan

- **Erref:** DON-207/042
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:26:20. **Bukatu:** 01:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gerra garaiko eta frankismoko ume lapurretei buruzko ikerketak egiten ari dira. Ama ezkongabeei ospitale batzuetan kendu egiten zieten umea, familia katoliko eta dirudunei emateko.

30. Euskal matriarkatuaren mitoaren oinarriak

- **Erref:** DON-207/044
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 01:29:48. **Bukatu:** 01:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Euskal matriarkatuaren mitoaren oinarriak zein diren azaltzen du. Euskal Herrian etxea zen garrantzia zeukana; nahiago izaten zuten semeari uztea, alabari baino, baina batzuetan alabari uzten zitzaion. Gipuzkoan ez baina beste euskal lurraldeetan asko gertatzen zen etxea alabaren esku uztea. Estrabonek zabaldutako mitoa eta kostaldeko arrantzaile familetako emakumeek egiten zuten lana ere aipatzen ditu. Etxeko erabaki nagusiak gizonezkoek hartu izan dituztela dio.

31. Zaintzaren ardura, partekatzeke

- **Erref:** DON-207/046
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:35:12. **Bukatu:** 01:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoari dagokionez aldaketa handiak egon direla uste du, baina hala ere, asko falta dela dio. Azaltzen du oraindik etxeko zereginetan emakumea dela gehien bat ardura hartzen duena. Zaintzaren ardura emakumeena dela azaltzen du.

32. Amatasuna, lehen, ezinbestekoa emakumeentzat

- **Erref:** DON-207/047
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 01:37:53. **Bukatu:** 01:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Amatasunaren gaia oso konplexua dela dio, ama onaren irudia aldatzea oso zaila dela. Lehenago ama izatea zen emakume baten bizitzari zentzua ematen ziona; gai horretan asko aurreratu dela uste du. Amatasuna ezinbestekoa zen emakumeentzat, baina ezkontzaren bitartez.

33. Klase sozialaren arabera bizimodua

- **Erref:** DON-207/049
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:43:57. **Bukatu:** 01:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Hiletetan eta trenetan zeuden mailakatzak azaltzen ditu. Dantzaldiak ere klase sozialaren arabekoak izaten ziren. Klub nautikoan eta teniseari sartzeko oso zaila zen, aberatsa ez baziren.

34. Eusko Ikaskuntzako historia sailean

- **Erref:** DON-207/050
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:46:33. **Bukatu:** 01:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Eusko Ikaskuntzan sartu zen, bere bizitzaren zati bat euskal kultura bultzatzen pasatzea nahi zuelako. Historia saileko lehendakaria izan zen, baita Gipuzkoako lehendakariordea ere. Unibertsitatean lanean zebilen garaia zen.

35. Donostiako kaleetan lehenengoz euskaraz entzun zueneko

- **Erref:** DON-207/052
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:49:48. **Bukatu:** 01:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gogoan dauka behin Donostian kalean euskaraz entzun zituela batzuk eta pozik kontatu ziola aitari. Donostian ez zen euskaraz entzuten.

36. Euskal giroa Donostian

- **Erref:** DON-207/053
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:52:00. **Bukatu:** 01:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kolegioan euskaraz zekiten oso ikasle gutxi zeuden. Haietako bati euskaraz egitearren edo zuri-gorri-berdez jantzita joatearren isuna jarri zioten. Kalean euskara oso berandu zabaldu zen. Euskal kantariak euskarari eman zioten bultzada aipatzen du. Principal antzokian urtero euskarazko obra bat egiten zela dauka gogoan. Bertsolaritzaren berri etxean eta Oiartzunen jaso zuen.

37. Ahizpa eta anaia Jone Forcadarekin euskaraz ikasten

- **Erref:** DON-207/055
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:57:02. **Bukatu:** 01:59:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bere ahizpa eta anai bana euskara ikastera eramaten zituzten, eskolaren ostean. Jone Forcadarekin, Txillardegiren emaztearekin, ikasten zuten.

38. Genero ikuspegia, modan

- **Erref:** DON-207/061
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 02:04:14. **Bukatu:** 02:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoarekin batera, historiagileek genero ikuspegia txertatu zuten. Moda bat sortu dela ere badio.

39. Feminismoa zer den

- **Erref:** DON-207/062
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 02:06:18. **Bukatu:** 02:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoa azaltzerakoan gizonezkoek eta emakumeek eskubide berberak dituztela kontatzea beharrezkoa dela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com